

INVERNAL



Gure itinerarioa.

Asteburu bat elurretan

JOXE RAMON FERNANDEZ CAÑADA

Abenduaren arratsalde hotz eta eguzkitsu batetan eman genion hasiera gure abenturatxoari. Arratsalde erdialdean Zegamako geltokian tranbiatik jeitsi ginen, bi orduko bidai bat egin eta gero; gure bizkarrak motxilaz eta geure buruak ilusioz zamatuak. Abenduaren hogeitamarra zen; naiz eta osasunez larri samar ibili, mendizaletazunak irabazi egin zuen, eta elurra zapaltzera joatea erabaki nuen.

Bihar arte, Aitzkorri!

Presarik gabe, tren geltokitik Zegamaino jeisten den karreteratik gindoazen, aritz eta gaztainondo emankorren adar biluzien azpitik pasatzen; bakoitza bere barruko mundu partikularrean galduta, mendiaren sakontasunaz, edertasunaz, emankortasunaz pentsatzen; eta nola ez? asfaltozko hirian geratu zen «lantzana»-z.

Ia esan gabe zer pentsatzen genuen, ia hitzik esan gabe, bide osoa egin genuen; hitz egiteko denborarik ez zen eta; hainbeste ikusteko zegoen! hainbeste gauzetaz pentsatzeko! Bi lagun eta helburu bat; zertarako hitzik? bakoitak bagenekien besteak zer pentsatzen zuen; bai, horixe da mendiko gauza politenetako bat: berrenkidetasuna.

Otzaurteraino doan karreteratik apartatuz, pistan, hainbeste aldiz ibilitako pista aldapatsu hartan, gure botak jarri genituen. Bertako beserrietako jendearen begietan harridurazko susmo bat igartzen nuen; ez zituzten ulertzen gure arrazoiak hāra joateko, zibilizazioren erosotasunak



Gure objetiboruntz ahalegin bizian.



Gailurretik gozatzen.

Urbia eta Gorbea.



hirian utziz. «Arratsaldeon» ozenki batez agurtzen gintuzten, gauza asko galdetzen hitzik esan gabe; bizitzak, horrela izan erazten gaitu; bai hirietan, bai baserrietan bakoitza bakarrik dago, bere barruko mundu pertsonalean murgilduta, harresi batez inguraturik, inor pasa ez dadin. Guk ez dugu irtenbide ematerik horrela irakatsi digu gizarteak.

Igo eta igo, pentsatu eta pentsatu, izerdiz blai, gure aterpera iritsi ginen; borda

bakarti bat zen; gure zama lurrean utziz, gailurreruntz begirada bat bota genuen; han zegoen gure helburua! han zegoen joan zen aste osoan zehar pentsatzen aritu izan nintzen proiektua! gure burutik zazpirehun metro gorago kokatua zegoen couloir eder hura!

Urte mordoxkatxo bat pasa da, bai; eta egoera biontzat aldatu egin da; gizarteak markatu digun bidea jarraitu dugu; bada-kizu pisua erosi, geroago ezkondu, pisua-

ren plazuak, mobleak erosi, etabar luze bat.

Motxiletatik gure afaria atera genuen: piku lehorrak, esne kondentsatua («a morro») hartzeko, noski; gailetak, gazta zatiren bat; linternaren izpi meheen azpian, pozik jaten genuen afaritxoa, ur izoiztuaz eztarriak buztitzen.

Benetan, eta ez une haietan bakarrik, horrelako mementuetan nere etxea etortzen zitzaidan burura; ez, ez erosotasunagaitik; zer arraio egiten nuen han? harriz eta elurrezko mendi bat igotzeagaitik hainbeste kalamitate pasatzeak merezi al zuen? Munduko isiltasunaren erdian, une aproposa zegoen garuna berotzeko.


Afaldu eta gero, derrigorrezko pixaldian zehar, gailurrerari azken begirada zuzendu nion; ilargiaren izpiek kutsu irreal bat ematen zioten; «bihar arte» ixil batez agurtu nuen mendia.


Ez nuen lo egiterik, gaua pentsatzeko zen. Lehioen zuloetatik izarrak ikusten ziren, keinuak egiten; gutxinaka-gutxinaka nekeak lo egin erazi ninduen; gabon Aitzkorri.

Kanal haunditik gora kranpoiez

Biharamunean, buru barruko esnagai-luak, seiretan jotzen zuen; lo-sakuetatik ez zitzaigun batere kostatzen ateratzea, naiz eta laupabost gradu zero azpitik egin; igoera hasteko gogoek dena gainditzen zuten. Esne kondentsatu tuboari zurrutada 'pare bat emanez eta gaileta batzuk karrus-

Aralar osoa Aitzkorritik ikusita.





katzen, gure babesa izan zen bordari agur bat botatzen genion gau erdian. Ilargiak paisajeari argi berezi bat ematen zion, elurretan itzalak proiektatuz.

Sasi artean igoera nazkagarria zen; ilar-giak pixkanaka-pixkanaka egunaren argitasunari lekua uzten zion, bitartean guk altitueda irabazten gindoazen; gure buru gainean izugarritzko hormak eta elurrezko kanal bat; kranpoiak jantzi beharra. Kanal hura izugarritzko kanal baten bukaera zen; dena izotz puxkaz bete zegoen, abalantxa baten edo batzuen aztarnak ziren, noski.

Oso neketsua gertatu zitzaidan zati hori, nere pasa berriaren gaixotasunez ez bait nengoen zeharo sendatuta; baina nere begien aurrean nuen paisajeak, dena ordainordetzen zuen; soka motxilan generaman baina elurra primeran zegoen kranpoez ibiltzeko, eta ez zegoen arriskurik soka erabiltzeko.

Elurrez eta izotzeko inbutu hartatik eskuinetara hurbiltzen, couloirrean sartu ginen; pausoz pauso igotzen ginen eta noiz behinka beheruntz begiradaxo bat botatzen genuen; nahiz eta Pirineoetan ez izan,

parajea bai errespetagarria zen. Kouloir erdian elur gainetik azaltzen ziren harri batzuetan atsedenditxo bat eman genien geure gorputz nekatuei; eta hantxe bertan txokolate puxka bat jan genuen kantinploratik ur trago batez lagunduta. Han eserita, izotzeko aldapa izugarri erdian ez genion batak besteari ezer esaten, bakarrik naturguneak gure begiei oparitzen zien paisajea mirestu egiten genuen; ostertza hain zabal eta ederra zen; Oria ibaiaren arroa gure oinetan edukiz, begien mugimendu xume batez Pirineoetaraino besartzen genuen. Eta gero batzuek zertarako joaten garen mendira galdetzen digute!

Baina jeiki egin beharra eta jarraitu, zoritxarrez, poztasuna ez zen amaigabea. Bigarren partea aldapatsuago zen eta kontuz ibiltzekoa, kontuan edukiz ez gindoazela loturik. Kouloirretik ateratzeko ezker aldea aukeratu genuen oraindik aldapatsuago bait zen, eta «pilpirra» pittin bat emateko. Han jadanik, kranpoiak «lau puntetan» estiloan erabili beharra zegoen, eta metro neketsu batzuen ondoren, bukaera eta paisaje liluragarri bat; buruaren mugimen-

du batez Picos de Europa-tik Pirineoetaraino ikusten genuen.

Nahiz eta mendi asko igo eta nahiz eta paraje liluragarrietan izan ez zait inoiz ahaztuko S. Silbestre egun hura.

RESUMEN

Un fin de semana en la nieve.—Después de un agradable paseo vespertino y una noche estrellada al calor de la chabola, los dos amigos suben en la brillante mañana de un San Silvestre soleado por la empinada pendiente de la Kanal haundi, que lleva a la cresta de Aitzkorri. Los cranpones muerden con gusto en la nieve dura y la cuerda se queda durmiendo en el fondo de la mochila. Así, 700 metros para arriba...